



Turquino gailurra

Sierra Maestrako lore bat

# TURQUINO, itsasotik KUBAko gailurreraino

## Amaia Elosegi

**G**OIZEKO lehen eguzki printzak oraindik urrun, eta gaueko trumpien burrunbarekin batera, geure bizikletak hartu eta La Cueva-rantz abiatu ginen gau beltzean barna. Emilio gure gidaria jadanik gure bila etorria zen La Mula-ko kanpinera, esku argi edo inolako argirik gabe, eta ilargia ere desagertzeaz zegoen. Gure helburua Turquino mendia zen, Kubako mendirik garaiena. Turquino

mendiak 1.974 metro ditu soilik baina Kuba bezalako lurralde lauean zelai eta bailara guztien gainetik gailentzen da.

Kuba orohar lurralde laua da baina bi mendikatek hausten dute bere zelai izatearen monotonía: bata irlaren erdialdean kokatzen da eta Sierra de Escambray deritza, bestea, eta garaiena berau, irlaren ekialdean dago eta Sierra Maestra du izena. Azken hau Kubako iraultza garaian

iraultzaileen gordeleku eta bizileku izandakoa da, eta bertatik jo zuten Santiagoko Moncada koartelera lehen erasoak Fidel Castro, Che Guevara, Camilo Cienfuegos eta gainerakoek. Sierra Maestra honetanxe kokatzen da Turquino. Ekialdetik Santiago de Cuban hasten da mendikatea, iparraldetik Bayamo da muga, mendebaldetik Cabo Cruz delakoa eta hegoaldetik itsaso zabala.

## Kubatik zehar ibiltzeko, zailtasunak

Gaurregun Kubak bizi duen egoera berezia dela eta, ez dago ia garraio biderik irlan zehar mugitzeko eta horregatik zailtasunak topa ditzakezu Santiagotik Pilonera doan errepide horretan zehar mugitzeko; bertan, jendearen ohizko garraioa zaldia, bizikleta edota oinezko garraioa bera dira. Harrigarriada bizikletaz ibiltzeko inolako ohiturarik izan ez duen herrialde batetan, urte beteren buruan jendea bizikletaz ibiltzera nolatan ohitu den; izan ere errekaririk ez dagoenean ez bait da beste aukerarik geratzen. Beraz Turquinora-ko abiapuntu den La Cueva-ra heltzeko Santiagotik dauden 130 km. hoiek izan daitezke oztoporik handiena.

La Cueva herriska txikia da, mapan ere agertzen ez den horietakoa, eta bertan ez dago lolekurik, ez janaria lortzeko aukerarik ere. Egokiena La Cueva baino lehen dagoen La Mula-ko kanpinean geratzea da. Kanpina bada ere, ez da dendarik behar, bungalow tankerako etxeko batzuk alokatzen bait dituzte bertan, oso merke alokatu ere pesotan ordainduz gero, noski.

Esan beharra dago, kutre samarra ere badela kanpina, baina besterik ezean ...

## Maldan gora

Goizeko hiruretan despertadorea jo artean, hamaika aldiz esnatu ginen gehienok, ez noski mendian maiz gertatu ohi den bezala alturaren eraginez; eltxoen zitzadek, bero kiskalgarriak eta sekulako ekaitzak uzten ez zigutelako baizik. Kuba osoa arras lurralde beroa da eta are gehiago da ekialdea; ondorioz uda partean ere gaetan ez du ia batere freskatzen. Goizeko hiru terdiak aldera La Muela eta La Cueva arteko hamar kilometroak egin ondoren (zulaketa eta erorketa bat tarteko), Emilio gidariaren lagun baten bidez bizikletak gorde eta lau terditan maldan gora abiatu ginen. Bidea hagitz ongi markatua badago ere, komenigarria deritzogu gidari batekin joatea, batetik gaez bidea topatzea nekeza delako eta bestetik gidaria deus ordaindu behar ez delako, gobernua jarriak bait dira. Beraz gidariarekin kontaktatzeko bezperan La Cueva-ra hurbiltzea da egokiena; hiruzpalau gidari dira txandatu z jendea tontorreraino eramaten dutenak.

Aldapa pikua da haseratik, landaredi oparoa tropikoko lurralde guztietan lez; eta ziu-

rrenera, inoiz honelako lurralde batetan izan ez dena, harriturik geratuko da garo, goroldio eta hosto erraldoiak ikustean. Zapoak bide lagun, jutia baten garrasi zorrotzaz eta Tocaroco-aren kantuz alaiturik, gaua bazihoala ohartu ginen. Tocaroco-aren kan-

betetzea komeni da. Zazpirak inguruan eguna esnatzen hasten da, eta goruntz igo ahala beroa ez da jadanik hain kiskalgarria. Goizaldeko trumoi hotsak uxatu dira eta desagertzen doazen behe lainoek egun polita iragartzen dute. Urte sasoi honetan normalean edozein egunetan igo daiteke Turquinora, goizetan beti bait dago oskarbi, nahiz arratsaldetan goikaldeak ho diez estaltzen diren.

## Kubako txoko garaienean

Bidea ona da, beti ere maldatsua bada ere. Apurka apurka itsasoa atzean utzi dugu eta bi ordu eta hiru laurden ibili ondoren "Alto de Cardero"-ra heltzen gara, 1.265 m-tara. Emilio mendia baten gailurrean gaudela dio baina gu ez gara horretaz ohartzen, zuhaitz eta landareek estaltzen bait dute guztia. Tarteka tarteka soilik argiune bat zabaltzen da landarearen artean eta atzean utzi dugun paisaia ikus daiteke. Emilio, tarteka korrika doa, umetxo baten antzera, baina guk geure erritimo geldoan jarraitzen dugu, geure zangoak aspaldi honetan bizikletara ohituak bait daude, ez ordea mendira. Lau ordu inguru ibili ondoren Pico Cubara iristen gara, 1.650 m-tara; egia esan, honek ere ez dirudi gailur bat, zelaigune bat baizik. Turquinoraino egunean igo eta jaitsi egin ordez, hainbatek bi zatitan egiten omen du: lehen egunean arratsaldean Pico Cubaraino igo bertan lo egin eta biharmonean gailurra egin eta behera. Horretarako, ordea lo zakua eta janari gehiago igo beharra dago, eta guk nahiago izan dugu hamaiketako egin (askoz goizago bada ere) eta aurrera jarraitu. Aipatu beharra dago azken aldi honetan nahiko zaila dela inon janaririk erostea, eta beraz komenigarria deritzogu mendirako bederen, zertxobait etxetik ekartzea. (Gainerantzean otorduak egiteko ez dago arazorik, bai hoteletan bai jantoki kubarretan ere). Pico Cubatik Turquinoraino 45 inguru besterik ez da geratzen eta piska bat jaitsi ere egin behar da bidean, Loma Redonda, Pico Cuba eta Pico Turquino arteko lepora iristeko. Hemen-

dik lehen aldiz Turquinoren gailurra ikusten dugu. Duela urte bete inguru Silvio Rodriguez-ek Turquinoren tontorrean kontzertu bat eman zuela bertaraino. Tontorrera iristean kontzertua imajinatua nahiean hasten naiz, benetan tona aproposa bait da zezen plazatxo bat dirudien gailurra. Jose Martí poeta eta komandantearen irudia dago



Pico Kuba Turquinora bidean



Turquino tontorrean, José Martí poetaren irudipean

tuaz alaiturik, gaua bazihoala ohartu ginen. Tocaroco Kubako sinboloa den hegaztia da, bertako banderaren koloreak bait ditu, zuri, gorri eta urdina alegia. Abiatu eta ordu terdira gutti gora behera, eta 500 m. igo ondoren, langileen kanpamendura iritsi gara, haxe da ur edangarria lor daitekeen azken tokia eta beraz kantinplorak ongi

### Turquinotik jaitsieran, atsedean bat



erdian, mendiari 2.000 metro-tara iristeko falta zaizkion metro hoiak iritsi nahiean edo. Bertan ez dugu mendi tontor batetan egotearen sentsazioziorik, ez bait da ezertxo ere ikusten lau aldetara, zuhaitz eta landareak soilik, baina Kubako txoko garaienean gaude!!.

### Jaitsiera luzea

Bost ordutako ibilbidea izan da, baina esango nuke orriandik gogorrena falta delal, jaitsiera, alegia. Eta gailurrean, eguzkiaren epeltasunean une batez loak hartzen bagaitu ere, behe-runtz jaitsi beharra dago. Jaitsiera benetan luzea egiten da, gezurra dirudi hainbeste igo dugunik!. Elaunak sofritzen hasten dire, aldapa ez bait da sekula bukatzen, itsasoa beti behean ikusten dugu. Igotzea haina denbora kostatzen zaigu jaitea, nekea nabaria bait da, eta egarria ere bai. Hamar ordu pasatxo iragan dira goizean abiatu garenetik berriro La Cuevara heltzen garenean eta lau mila metrotako desnibela igo eta jaitsi dugu. (Euskal Herrian honelako desnibelak inoiz gutxitan ibiltzen direla datorkit burura). Eta Emilio asteen hiruzpalau aldiz igotzen omen da! ¡Normaldi jendearekin, eta jenderik ez dagoenean, haitzur eta palarekin bidea konpontzera. Baina guretzat nahikoa da: Turquinoko malde-tan gordeko dugu gure oroimena eta gaulurrean geratuko da gure oinatza, ikurriña lekuko beste euskaldunen bat iristen den artean...

### FITXA TEKNIKOA

**Mapak:** Mendiko maparik ez dago. Sierra Maestraren kokalekua ikusteko, Kuba 1: 1.250.000-ko mapa hungariar bat soilik Euskal Herrian eros daiteke.

**Garraio-bidea:** Zorte etsa pazientzia handia izanez gero, agian kamioiez; bestela, bizikletaz, edota Santiagon kotxe bat alokatuz.

**Kokalekua:** Kubaren ekialdean, Sierra Maestraren Ekialdera Santiago, iparraldera Bayamo, mendebaldera Cabo Cruz eta hegoaldera itsasoa.

**Abiapuntua:** Iparraldetik, Bayamo aldetik igo badaiteke ere, bide zuzenean La Cuevatik da, Santiagotik 130 km-tara mendebalderuntz.

**Beharrezko materiala:** arropa, jertse bat, trekkineko botak, egunerako janaria eta ura.

**Urte sasoi egokiena:** Maiatza eta Urriaren ezik (eurite hilabeteak bait dira), beste edozein garaietan.

**Txanpona:** Inguru horretan mugitzeko pesoak aldatzea beharrezkoa da.

**Zapatari taldeak:** 7 arabar, bizkaitar bat eta lau gipuzkoarrek osatutako taldeak, Kuba zeharkatu dugu bizikletaz, Santiagotik La Habanaraino 1.500 km. eginez; bidean, Turquino mendian utzi nahi izan dugu gure hondar alea, guztia, Kubako herriarekin elkartzunean.

### RESUMEN

### TURQUINO, desde el mar hasta la cima más alta de CUBA

**E**L monte Turquino es la cima más alta de Cuba, que con sus 1.974 metros corona la Sierra Maestra, ubicada al este de la isla. Es ésta, junto con la sierra de Escambray, en el centro de la isla, la única zona de montaña propiamente dicha, que rompe la monotonía de las llanuras del resto del país. Sierra Maestra es conocida por las andanzas de los revolucionarios y como refugio de éstos, desde donde prepararon el asalto al cuartel de Moncada en Santiago, primer baluarte de lo que iba a ser el triunfo de la revolución cubana.

La Sierra Maestra limita al este con Santiago, al norte con Bayamo, al oeste con el Cabo Cruz y al sur con el mar abierto.

El Pico Turquino ofrece el atractivo de una media montaña en zona tropical, con exuberante abundancia de árboles y plantas tropicales que alcanzan grandes dimensiones; ofrece a su vez, el atractivo de empezar a subirlo desde el nivel del mar, es decir, metro a metro desde su base. Se accede desde el pequeño poblado de La Cueva, a 130 km de Santiago, desde donde con mucha suerte y paciencia (en esta época de periodo especial), se puede acceder en camión, o si no, en bicicleta, o coche alquilado. Se recomienda dormir en el camping de La Mula, a 10 km de La Cueva.

Se puede subir en el día, unas 10-11 horas entre subida y bajada, o bien en dos días, haciendo noche en el Pico Cuba (hay un edificio abandonado en caso de lluvia). Se recomienda salir de madrugada, entre las 3 y 4 de la mañana, para evitar el sofocante calor que hace a partir del mediodía. Hay posibilidad de subir con guía, contactándolo la víspera en La Cueva; son trabajadores del Gobierno y no cobran nada. ¡Ah, y no olvidados de proveeros de comida y agua antes de subir!.

